



Diskoko zenbait partaide, Mikel Laboaren alargun Marisol Bastidarekin (zutik erdian), atzo Donostia Dokan. ■ PEDRO MARTÍNEZ

Gazteen musua Laboari

Hemeretzi taldeek kantu bana egin dute 'Txinaurriak' diskorako

Laboaren kantuen bertsioen bilduma hau Bide Huts etxeak plazaratu du, biniloan nahiz CDan

■ FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. Bide Huts etxeak Mikel Laboaren omenezko diskoa plazaratu du: 'Txinaurriak'. Mikel Laboari ikasitako kantuak. Hemeretzi talde edota kantarik hartzute parte, bakoitzak abesti bat eskaintzen duelarik. Hain zuzen ere, atzo bi urte bete ziren Mikel Laboaren heriotzetik.

CDan nahiz binilozko forma-toan eman da argitara. Eta binilozko diskoka CDa, eskaintzen du baita ere.

Aurtengo otsailean ekin zion proiektuari Bide Huts etxeak. Atzoko aurkezpenean pozik zeuden ekintzaileak, ekimena ez baita batere erraza izan. «Lan handia izan da. Gu ez gara profesionalak, ez gara disketxe bat. Bakoitzak bere lana duka, edo langabezi dago. Hainbat jende egon da hemen implikatuta; horrek egiten du berezia diskoa», esan zuen atzo-kaurkezpenean Eneko Aranzas-tik.

Eta Karlos Osinagak erantsi: «Hasteko, grabazioen ordutegia antolatzear oso gauza zaila izan da». Geroxeago Osinagak: «Maitasunezko diskoa da. Zuk zeozer

jaso duzunean oso erraza da hura itzultzear».

Tartean bazen zaitasun ekonomikorik ere. «Arazorik handiena, horixe geneukan, ekonomikoa. Horregatik, urri aldera gure web gunean toki bat ireki genuen diskokaaren eskaerak jasotzeko. Eskerrak eman nahi dizkiogu dirua aurreratu duen jende horri, oraindik burutu gabe zegoen produktu bat erosten ari zelako. Aurrez bildutako dirua giltzarria izan da proiekta aurrera ateratzeko».

«Kantu sakratuak»

Askatasuna eman zitzaien taldeei, beren kantu aukera zezaten. Eta aukeratu ahala, Bide Hutsek gorde egiten zien eskubidea. Baino inoiz gertatu zen bi taldek kantu bera nahi izatea, edota talderen batek ekin kantu bat eta, aurre-ra egin ezinda, bertan behera utzi eta beste abesti bat heltzea. «Taldeek askatasuna zeukaten auke-ratzeko. Ariketa zaila eta polita zen. Hain dira handiak, hain dira sakratuak Mikelen kantuak!», esan zuen Osinagak.

Nolatan izenburu hori? Karlos Osinagak atzo esan zuen bezala, «txoria» bezala, «txinaurria» oso hitz laboatarra delako». Baino, errepasatu dugu kantuaren zerrenda eta han ez da 'Txinaurria' ageri. Alde batetik ez da harritzeko, erritmo oso lasaiakoa izaki zail samarra gertatuko zaielako horrelako talde rockeroi.

DISKO

'Txinaurriak'

Argitalerrea:

Bide Huts.

Salneurriak:

CDa 15 euroan dago; bini-lozko + CDa, 18an.



Taldeak eta kantuak

Willis Drummond: 'Gaztetasuna eta zahartasuna'

Hotel + Miren Iza: 'Nao es tu, facultade de sentir'

Berri Txarrak: 'Liluraren kontra'

Xabier Montoya: 'Xoxo beltza'

Zura: 'Haize hegoa'

Amadio: 'Baga biga higa'

Anari: 'Antzinako bihotz'

Dilistak: 'Negu hurbila'

Akauzazte Danok: 'Txoria txori'

Ama Say: 'Ama hil zaigu'

Ruper Ordorika: 'Gure bazte-rak'

Lisabó: 'Gure hitzak'

Gabon Caligula: 'Kirru'

Inoren Ero Ni: 'Langile baten galderak liburu baten aurrean'

Atom Rhumba: 'Lizardi'

Gora Japon: 'Bedeinkatua'

Audience: 'Lili bat'

Borrokan: 'Komunikazio-Inko-munikazio'

Mursegó + Eten: 'Zaudet lasai'

Diskoaren diseinua Ramon Martínez Zabalegi arduratu da. «Kriston plazera izan da. Baiezkoa eman nuen, Bide Huts-en lan moldearekin bat natorrelako. Pentsatu nuen eskuz egindako zerbaiz sartu behar nuela diskokaaren azalean, Laboaren diskoen portadak askotan margolanak izaten zirelako, Zumetarenak-eta. Gainera, garbi neukan zerbaiz minimalista izan behar zuela, Bide Huts-en irudia halakoxea delako. Azkenean, nahiz eta duen ematen, diskoko irudi hori txinaurri bat da. Txinaurriaren dekonstruzioa egin dut», esan zuen.

Grabazio gehienak Tolosako Bonberenean egin dira, Karlos Osinagaren ardurapean. Beste batzuk Andoaino Garate estudioan, edota Azkaraten.


Hau ez da rockeroek Laboari egiten dioten aurreneko omenaldi-diskoa. Orain dela hogei urte, Xabier Montoiak koordinatuta, 'Txerrokee' diskoa plazara-tu zen, hura ere Laboaren kantu bertsioen bilduma. Hauxe zuen egitura: 'Haika mutil' (Su ta gar); 'Gaberako aterbea' (Negu Gorriak); 'Ama hil zaigu' (Bukaera); 'Ituringo arotza' (Pottoka); 'Baga, biga, higa' (Kiwak); 'Txoria txori' (Angel G. Katarain); 'Haika mutil' (Karkaxxa); 'Baztan' (Delirium Tremens); 'Gogo eta gorputzaren zil-bor hesteak' (Bap!!); 'Zaudet lasai' (M-ak); 'Lekeitioruntz' (Tapia eta Leturia).

Gatibú lanzan un cd y dvd en directo que resume los conciertos de su exitosa gira 2009

■ ARTURO GARCÍA

BILBAO. El grupo de rock Gatibú publica estos días el testimonio en directo de la exitosa gira que la banda gernikarra llevó a cabo durante el año pasado como apoyo del que fue su tercer disco en estudio 'Laino guztien gainetik, sasi guztien azpitik'. El disco, que cosechó un considerable respaldo por parte del público gracias a sonados singles como 'Bang-bang txik-txiki bang-bang', permitió al cuarteto que lidera el vocalista Alex Sardui estar en la carretera durante un año largo, un periodo en el que la

EL DISCO
Grupo: Gatibú.
Discográfica: Baga Biagia.
Título: 'Zuzenean bizitzeko gogo'.
Contenido: Cd y Dvd grabado en directo durante la gira 2009.



banda ofreció más de medio centenar de conciertos. El grupo se ha decidido ahora a publicar un cd y un dvd que reúnen una selección de temas grabados en cuatro de los recitales de la gira que el grupo ofreció en agosto y septiembre de 2009 durante la Aste Nagusia de Donostia en Sagües, las fiestas de Bilbao y de Gernika y en el Plateruena de Durango. Junto al repertorio en directo, el grupo ha incluido además tres nuevas canciones inéditas registradas en estudio.

Grabación en Donostia

Concretamente, son cinco los temas que el grupo vizcaíno ha incluido de su concierto en la explanada de Gros celebrado el 13 de agosto del año pasado. «Hemos realizado un fiel reflejo de lo que se ve en nuestros directos, dejando los fallos y enseñándole las cosas al espectador de forma cercana y desnuda. No hay trampa ni maquillaje. Creemos que la sinceridad y la naturalidad son cosas bonitas y son dos características importantes del grupo», afirma Haimar Arejita, guitarrista y uno de los miembros cofundadores de la banda.

Respecto a la inclusión de tres nuevos temas, Arejita sostiene que «la razón de introducir tres inéditos viene de la necesidad de crear algo nuevo. De cara a la próxima gira, no queríamos tocar sólo las canciones de siempre y creímos que tres nuevas canciones le darían frescura a los directos». Asimismo, y de cara a la gira que llevarán a cabo en 2011, la banda avisa que van a introducir sustanciales cambios respecto a lo que se vio en 2009, con nuevo repertorio y arreglos y el refuerzo de dos músicos más en escena.